# erakusketa

### Christophe Douceten eskulturak larunbata arte izanen dira Ordizian

Larunbata da azken eguna Ordiziako Barrena kultur etxean Christophe Doucet eskultorearen lanak ikusteko. Erakusketa 18:00etatik 20:00etara bisitatzen ahal da. Christophe Doucet Landetan (Frantzia) bizi da, basoan, basozaina baita. Basoa da, hain zuzen ere, Douceten lanen iturburu. Basoaren misterioa erakusten dute haren lanek, eta misterio hori irudikatzeko forma arruntak baliatzen ditu Doucetek, hala nola, basoko aterpeak eta lanabesak. Heriotzaren mugak ikertzen ditu Doucetek bere lanetan, bai eta unibertsoaren oreka nola aurkitu behar den aztertu ere; basoaren gaia materia hartuta ikertzen du hori. Zura eta metala erabiltzen du eskulturetan, eta sortze prozesuari garrantzi handia ematen dio, erritluz beteriko prozesua egiteraino.



EGUNKARIA

Basoa da Christophe Doucet artistaren eskulturen inspirazioaren iturburu.

## musika

**BAIONA. Lonj eta Shuffle Maniacs.** Gaur, 21:30ean, La Luna Negra aretoan.
**BILBO. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.** Gaur, 20:00etan, Euskalduna jauregian.
**DONOSTIA. Ttakunpa.** Gaur, 17:00etan, EHUko areto nagusian.
**IRUÑEA. Sen.** Gaur, 21:00etan, Txantreako Akelarre tabernan.
**NOAIN. Jesus Trincado Quartet.** Gaur, 20:00etan, Kultur Etxean.
**USURBIL. Zama, Susmo, Gaitza eta Kauta.** Ostiralean, 22:00etan, Akerra gaztetxean.

## antzerkia

**BILBO. 'RGB'.** Gaur, 20:00etan, Aiala antzokian. The Chanclettes taldeak emana.
**DONOSTIA. 'El soldadito de plomo'.** Gaur, 18:00etan, Larrotxene kultur etxean. Plus (Bulgaria) taldeak emana. Txotxongiloak.
**'Yo: no soy esa'.** Gaur, 19:00etan, Loiolako kultur etxean. Idoia Sanchezen eskutik.
**EIBAR. 'El toro con lunares'.** Gaur, 10:30ean, Amaña kultur aretoan. Burbujas (Argentina) taldeak emana. Txotxongiloak.
**GASTEIZ. 'Un teatro de bolsillo'.** Gaur, 20:00etan, Atauko antzokian.
**LEIOA. 'El clasico binomio'.** Gaur, 12:00etan, EHUko areto nagusian. Equipo Teatro Llanura taldeak taularatua.
**ORDIZIA. 'El valiente soldado de plomo'.** Gaur, 11:00etan eta 18:00etan, Herri antzokian. Vessel (Bulgaria) taldeak emana.
**SESTAO. 'Feo'.** Gaur, 19:00etan. Papapalote (Kuba) taldeak emana. Txotxongiloak.
**TOLOSA. Vietnamgo txotxongiloak ur gainean.** Gaur, 11:30ean eta 15:00etan, Beotibar pilotalekuan. Hanoi Puppets taldearen eskutik.
**'Ikala'.** Gaur, 17:30ean, Leidor antzokian. Suforel (Frantzia) taldeak emana. Txotxongiloak.
**'El paladin de Francia'.** Gaur, 18:30ean, Kultur Etxean. Libelula (Espainia) taldearen eskutik. Txotxongiloak.
**'El Arbol magico'.** Gaur, 22:30ean, Kasinoan. Cengiz Ozek (Turkia). Txotxongiloak.

# hitzaldiak

**'El futbol: violencia, negocio...'.** Gaur, Bilboko Euskalduna jauregian (11:30ean).



EGUNKARIA

## Clemente futbolaz hizketan, kirol alderdia ez besteak aipagai

EHUko Bizkaiko campusak antolatzen dituen prentsa jardunaldiak futbolaren gainekoak izanen dira aurten. Gaur, mahai-ingurua eginen dute futbolak dituen bortizkeria, negozio, eskandalu eta ikuskizun alderdiei buruz. Bertan izanen dira Espainiako selekzioko azken hiru entrenatzaileak: Javier Clemente, Jose Antonio Camacho eta Iñaki Saez.

## hitzaldiak

**AGURAIN. '¿Para que la Historia?'.** Gaur, 20:00etan, Harresi aretoan. Antonio Riverak emana.
**ARRASATE. 'Euskaraz dibertitzeko manerak'.** Gaur, 19:00etan, Monterron jauregiko hitzaldi aretoan. Kike Amonarrizen eta Asisko Urmenetaren eskutik.
**BEASAIN. 'Bortizkeria nola prebenitu hezkidetzaren bitartez'.** Gaur, 18:00etan, udaletxean. Make Irigoienek emana.
**BILBO. 'El futbol para la mujer'.** Gaur, 09:30ean, Euskaldunan. Mahai-ingurua: Mari Carmen Izquierdo eta Nerea Onaindia.
**'El futbol: violencia, negocio, escandalo y espectaculo'.** Gaur, 11:30ean, Euskalduna jauregian. Mahai-ingurua: Javier Clemente, Iñaki Saez, Jose Antonio Camacho eta Tony Fidalgo.
**'Rodillas de cristal'.** Gaur, 13:00etan, Euskalduna jauregian. Mahai-ingurua: Sabino Padilla eta Miguel Gutierrez.
**'Autodeterminazio subjektuaren manipulazioa: nazioarteko esperientziak'.** Gaur, 19:30ean, La Bolsa auzo etxean. Gabirel Ezkurdiak emana. Udalbiltzak antolatua.
**DONOSTIA. Emakume idazleen topaketa.** Gaur, Udal Liburutegian: Lourdes Oñederra (18:00etan) eta Ananada Devi (19:30ean).
**'Familiako gatazkei nola aurre egin' hitzaldi sorta.** Gaur, 19:00etan, ONCEko egoitzan: *Euskal gazteriak familiari buruz duen gaurko ikuspegiaren balorazioa* (Sabino Aiestaran) eta *Gatazkan banandutako familiak tratatzeko esku-hartze psikologikoak* (Dolores Gutierro).
**'Autodeterminazio subjektuaren manipulazioa: nazioarteko esperientziak'.** Bihar, 19:30ean, Kutxaren Doctor Amino aretoan. Gabirel Ezkurdiak emana. Udalbiltzak antolatua.
**EIBAR. Juan Antonio Mogelek 'Peru Abarca' idatzi zueneko bigarren mendeurrena.** Gaur, 19:00etan, Portalean: *Peru Abarca: forua eta literatura* (Andres Urrutia) eta *Gregorio Arrueren Peru Abarca liburuaren gipuzkerazko itzulpena* (Jabier Kaltzakorta).
**GASTEIZ. 'Politicas de coaccion a las mujeres: la sexualidad, la reproduccion, el cuerpo'.** Gaur, 19:30ean, Euskadiko Kutxaren hitzaldi aretoan (Dato, 16). Justa Monterorenn eskutik.
**'La contemporaneidad en el mundo: Bilbao'.** Gaur, 19:30ean, Vital Kutxa Fundazioaren aretoan. Pedro Goirienak emana.
**IRUÑEA. 'Arte modernoaren onarpena: Artetaren, Maezturen eta Etxebarriaren pintura'.** Gaur, 20:00etan, Erraldoien Txokoan. Ismael Manterola artearen historialariak emana.
**LARRABETZU. 'Ai ama!' literatur hitzaldia.** Gaur, 20:00etan, eskoletako liburutegian. Arantxa Iturbe idazlearen eskutik.
**ZANGOZA. 'Amejoramiento y fueros'.** Gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Bixente Serrano Izkok emana.

## bertsolariak

**GASTEIZ. Bertsolari Gazteen Arabako. I. Sariketaren finala.** Bihar, 20:00etan, Txirrindulari elkartean (Herreria, 108). Partehartzaileak: Ekaitz Goikoetxea, Iñaki Gurrutxaga, Manex Agirre, Julen Zulaika, Urko Egaña eta Iñigo Eizagirre.
**LESAKA. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.** Bihar, eguerdian, plazan.

## dantza

**BILBO. Urbeltzen dantza ganbera.** Gaur, 20:00etan, Kafe Antzokian.
**ONDARROA. Urbeltzen dantza ganbera.** Bihar, 20:00etan, Kafe Antzokian.

## ikus-entzunezkoak

**BERGARA. 'Los amantes del circulo polar'.** Gaur, 22:15ean, gaztetxean.
**BILBO. Michel Gondry zuzendariaren musika bideoak.** Gaur, 21:00etan, Bilborock aretoan.
**DONOSTIA. 'Antes llega la muerte'.** Gaur, 20:15ean, Antzoki Zaharrean.
**IRUÑEA. 'Manaslu: la mansion de los espiritus'.** Gaur, 20:00etan, Txantrea kirol elkartean. Nerea Dominguezen eta Gorka Ripodasen eskutik.
**ORDIZIA. 'Charakusa 2001 - Karakorum'.** Gaur, 19:30ean, Barrena kultur etxean. Javier eta Iñigo Mutiloaren eskutik.